

NIRE DATU PERTSONALAK ZUZENTZEKO ESKUBIDEA BALIATZEKO FORMULARIOA

Tratamendu-jardueraren eta bere arduradunaren datuak, zeinaren aurrean eskubidea baliatzen den

Tratamendu-jarduera					
Tratamenduaren arduraduna		Gipuzkoako Batzar Nagusiak			
Kalea	Miramón Pasalekua	Zkia.		164	
Herria	Donostia – San Sebastián	Lur. historikoa	Gipuzkoa	PK	20014

Tratamendu-jarduera zehatzaren izenik adierazten ez bada, ulertuko da eskubidea tratamendu guztietarako baliatzen dela.

Adin naguskoa den eskatzailearen datuak

1. deitura		2. deitura			
Izena		NAN*			
Kalea		Zkia.		Solairua	
Herria		Probintzia		PK	
Telefonoa		Posta elektronikoa			

Ordezkeri legalaren datuak (desgaituta dauden eta adingabeak direnen kasuan)

1. deitura		2. deitura			
Izena		NAN*			

Zuzentzeko dudan eskubidea baliatu nahi dut, datuen babesari buruzko araudian ezarritakoaren arabera.

Honako hau egiteko eskatzen dut:

- 1) Zehaztugabeak edo osagabeak diren niri buruzko datu hauek zuzentzeko, aipaturiko tratamendu-jardueretan daudenak, edo erantsitako orrialdean adierazten ditudan datuak:

Datu okerra	Datu zuzena

- 2) Hala badagokio, dokumentazio justifikatzailea eranstean da
- 3) Planteatutako zuzenketa niri jakinarazteko
- 4) Jakinaraztea datuak jaso izan dituzten fitxategien arduradunei egindako zuzentzea
- 5)

Lekua eta data	Sinadura

(*) NAN, IFZ, pasaporte edo baliokidearen zenbakia duten pertsonen kasuan, bai eta dagokion dokumentuaren fotokopia.

ARGIBIDEAK

Zure datu pertsonalak zuzentzeko eskaera Gipuzkoako Batzar Nagusien aurrean egiten da, tratamenduaren arduradun gisa.

Formularioa betetzeko jarraibideak eta idazkiarekin batera eman beharreko dokumentazioa

- Beharrezkoak dira izena, abizenak eta NANaren fotokopia edo zuzenbidean balioduna den identifikazio pertsonaleko beste edozein bitarteko.
- Interesduna desgaituta badago edo adingabea bada, beharrezkoak dira, halaber, ordezkari legalaren lehen aipaturiko datuak; gainera, kasu horretan ordezkari legala egiaztatzen duen benetako dokumentu bat ere aurkeztu behar da.
- Era berean, helbidea edo posta elektronikoa beharrezkoa da jakinarazpenetarako, data eta interesdunaren sinadurarekin.

Prozeduraren eskakizunak tratamenduaren arduradunarentzat

- Zuzentzeko eskubidea interesdunak bakarrik egikaritu dezake. Beraz, ez da bitarteko baliagarria hirugarren pertsonen datu pertsonalak zuzentzeko.
- Arduradunak eskatzaileari gehienez hilabeteko epean erantzun beharko dio, eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita.
- Zuzentzeko eskubidea baliatzeko eskaera onetsiko balitz, arduradunak hilabeteko epean zuzendu beharko du, eskaera jasotzen denetik zenbatzen hasita. Halaber, tratamenduaren arduradunak uste badu ez dela zuzenketarik egin behar, kaltetuari modu arrazoituan jakinarazi behar dio.
- Eskaerak ez baditu zehaztutako eskakizunak jasotzen, tratamenduaren arduradunak zuzentzeko eskatu beharko du.
- Eskubidea ukatu liteke araudiak hala ezartzen duenean.
- Datuak zuzentzea doakoa da.

Aplikazio-araudia

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Direktiba (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena, 16. artikulua.

Erreklamazioak (eskubideen zaintza)

- Eskatzaileak uste badu ez zaiola behar bezala erraztu bere datuak zuzentzeko eskubidea, erreklamazioa aurkeztu dezake Datuak Babesteko Euskal Agintaritzan, bere eskubideak zaintzeko prozedura bat hasi dezan.
- Datuak Babesteko Euskal Agintaritzarekin harremanetan jartzeko bere webgunearen bidez egin daiteke: www.avpd.eus.